# BOST EKO 2021

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

prendido

por

el aparecer

de tu

cuerpo

# BOSTEKO 2021

Urtero bezala, Bosteko programa kulturalean Bizkaiko Lurralde Historikoko bost udalerritako kultura sailak batzen gara (Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo eta Leioa) deialdi publiko baten bitartez arte garaikideko erakusketa ibiltari bat ekoizteko asmoarekin. Komisariotza lanetarako hautatutako pertsonen eta udalerri horietako kultura arduradunen lankidetzaren bidez antolatzen gara eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren babesa daukagu.

Programa honek artearen deszentralizazioa dauka helburu eta garrantzi handiko artista garaikideen jarduna gure udalerrietako jende guztiari hurbildu nahi dio. Hala, 1998tik ezagutza artistikoaren zabalkundea eta esperientzia sentikorren bizipena bultzatu dira gure herrietan, udalen arteko lankidetza eta sinergiak indartu diren bitartean.

Denboraldi berri honetan garai aldaketekin dugun konpromisoa baieztatzen da. Bostekoren baldintzak hobetzeko gabiltza lanean, programaren hazkundearen eta kalitatearen aldeko apustua egiten. Deialdiaren harira artisten eta komisarioen interesa gureganatzeko asmoa dugu, herritarrek artearekin duten harremana indartzen saiatzen garen bitartean. Horregatik, Bosteko 2021 deialdiaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. **Iván Gómez**ek eta **Idoia Leache**k komisario lanak egingo dituzte **Helena Goñi**, **Daniel Llaría** eta **Izaro Ieregi** artisten jardunen irakurketa erlazionala den «*Zure gorputzaren agerpenak liluratua*» erakusketan. Gainera, edizio honek berritasunak dakartza; bitartekaritza programa bat egongo da hurrengo ikerlariek osatuko dutena, bakoitzak bere hitzaldiarekin: Maite Garbayo, Natalia Vegas, Pablo Marte eta Jaime Cuenca; Isabel de Naveránek eta María García Ruizek, haien arteko harreman epistolarra erakusten duen bideo proiekzio batekin amaiera emango diote bitartekaritza programa honi. Programaren zabalkundean ere aldaketak egongo dira. Sare sozialetan, Instagramen zehazki, presentzia handiagoa izango dugu. Alde batetik, **Iván**i eta **Idoia**ri esker orain arte egin izan dugun aurkezpenerako bideo ekoizpena eguneratu dugu, beren komisariotza proposamenean lantzen dituzten gaien inguruko ikusizko alegoriaz osatutako jolas batera eraman baitituzte artistei egindako elkarrizketak. Beste aldetik, **Juan Pablo Ordúñez / MawatreS**ek eta **Andrea Estankona**k artista bakoitzaren proiektuekin elkarrizketa berriak irekitzen dituzten edukiak proposatzen dituzte.

Aldaketa guzti hauek katalogoan jasotzen dira, Bosteko 2021 posible egin duten bidaide guztien gogoen eta ahaleginen memoria izateaz gain, arte garaikidearen zabalkunderako eta gure udalerrietan pentsaera kritikoa bultzatzeko ere balio duena.

**Miriam Arriaga, Amagoia Garaizabal, Hilario Mozo, Luzia Martín eta Alberto García**
Udaletako Kultura teknikariak
Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo eta Leioa

# BOSTEKO 2021

Como cada año, en el programa cultural Bosteko nos coordinamos entre los departamentos de cultura de cinco municipios del Territorio Histórico de Bizkaia (Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo y Leioa) para producir una exposición itinerante de arte contemporáneo a través de una convocatoria pública. Nos organizamos mediante la colaboración entre las personas elegidas para la labor de comisariado y las y los responsables de cultura de dichos ayuntamientos. Contamos, además, con el apoyo del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Este programa persigue la descentralización del arte, acercando al público en general de nuestros municipios la práctica de artistas contemporáne@s de especial relevancia, promoviendo así, desde 1998, la difusión del conocimiento artístico y propiciando experiencias sensibles en nuestros pueblos, así como fomentando la cooperación y las sinergias entre ayuntamientos.

En esta nueva temporada nuestro compromiso se afirma con el cambio de los tiempos. Estamos trabajando en mejorar las condiciones de Bosteko, apostando por el crecimiento y la calidad del programa, con la intención de captar el interés de artistas y comisari@s en la convocatoria, a la vez que buscamos reforzar los lazos entre el arte y la ciudadanía. Es por ello que recalcamos la relevancia de Bosteko 2021, donde **Iván Gómez** e **Idoia Leache** comisarian la exposición «Prendido por el aparecer de tu cuerpo», una lectura relacional de la práctica de tres artistas: **Helena Goñi**, **Daniel Llaría** e **Izaro Ieregi**. Además, esta edición trae novedades, como un programa de mediación con las voces de las investigadoras e investigadores **Maite Garbayo**, **Natalia Vegas**, **Pablo Marte** y **Jaime Cuenca**, programa que cierra con el visionado de una proyección que muestra el intercambio epistolar entre **María García Ruiz** e **Isabel de Naverán**. Sumamos también cambios en la difusión del programa, teniendo una mayor presencia en redes sociales, acercándonos a la comunidad online desde Instagram. Por un lado, actualizamos la producción del vídeo de presentación que veníamos haciendo, gracias a Iván e Idoia, quienes expanden las entrevistas a las artistas hacia un juego de alegorías visuales en torno a los temas que trabaja su propuesta comisarial. Por otro lado, **Juan Pablo Ordúñez / MawatreS** y **Andrea Estankona** proponen nuevos contenidos que vuelven a abrir el diálogo con los proyectos de cada artista.

Todos estos giros se consignan en este catálogo, que sirve como memoria del esfuerzo e ímpetu del conjunto de compañeras y compañeros de viaje que han hecho posible Bosteko 2021, un ejercicio que procura la apertura hacia el arte contemporáneo y la generación de pensamiento crítico en nuestros municipios.

**Miriam Arriaga, Amagoia Garaizabal, Hilario Mozo, Luzia Martín y Alberto García**

Técnic@s de cultura de los Ayuntamientos
Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo y Leioa



# Olerki bat idazteke

*Zure suzko hitzarekin jantzi nintzen*
*zure gorputzaren agerpenak liluratua*
*(...)*

«Prendido por el aparecer de tu cuerpo» idazteke dagoen olerki baten bigarren bertsoa da. Aldi berean, esaldiak Bosteko 2021 programako komisariotzari izena ematen dio.

Ekimen hau idazteke dagoen ikerketa baten jarraipena da; artista garaikideen jardunaren behaketa bat, hortik abiatuta artearen eta teknikaren arteko harremana testuinguruan birkokatzen saiatzeko. Ikerketa joan den urtean hasi zen Harriak (Eremuak) programaren barne Ea eta Gueñes herrietan antolatutako erakusketa ibiltariarekin. Erakusketak aipatutako olerkiaren lehen bertsoa izan zuen izenburutzat eta komisariotza horretan testuaren eta ehunaren arteko harremanari erreparatu zitzaion.

Hemen, **Helena Goñi**ren, **Daniel Llaría**ren eta **Izaro Ieregi**ren jardunei erreparatuz sakondu nahi dugu ikerketan, haiekin batera pentsatzeko eta, zehazki, gorputzen eta horien agertzeko moduen arteko harremanaren inguruan hausnartzeko. Beste ikerlari batzuen ahotsen bidez gai hau zabalduko dugu Jean-Louis Déotteren tesiari begira. Déottek ez zuen teknika instrumentalizazio bezala ikusten, izakia bere harremanetan agertaraztea ahalbidetzen duen kondizio gisa baizik.

Komisariotza honek metodologia aktibo moduko bat suposatzen du, pentsamendu kolektiboa ekoizteko gailu erlazional bat sortzeko saiakera; hortaz, zaintza lan bat zein aurrera egin heinean garatzen doan ernaldi bat dakartza.

Iván Gómez

# Un poema por escribir

*Y me abrigué con tu palabra de fuego*
*prendido por el aparecer de tu cuerpo*
*(...)*

«Prendido por el aparecer de tu cuerpo» es el segundo verso de un poema por escribir. A su vez, esta frase da título a la curaduría para el programa Bosteko 2021.

Esta iniciativa continúa una investigación por escribir; una observación de la práctica de artistas contemporáneos para, desde ahí, intentar recontextualizar la relación entre arte y técnica. Dicha investigación se inició el año pasado con la exposición itinerante que se organizó para el programa Harriak (Eremuak) en los pueblos Ea y Güeñes. La exposición llevaba por título el primer verso del poema citado y en ese comisariado se atendió a la relación entre el texto y el tejido.

Aquí, quisiéramos seguir profundizando en la investigación prestando atención a la práctica de **Helena Goñi**, **Daniel Llaría** e **Izaro Ieregi**, para pensar junto con ellas y preguntarnos concretamente sobre la relación entre los cuerpos y sus modos de aparecer. Buscaremos ampliar esta cuestión con las voces de otras investigadoras desde el contraste con la tesis de Jean-Louis Déotte, quien ve la técnica no como la instrumentalización, sino como la condición que permite hacer aparecer al ser en sus relaciones.

Este comisariado supone una suerte de metodología activa, un intento de dispositivo relacional para la producción de un pensamiento en colectivo; implica, por tanto, una labor de cuidados y una gestación que se desarrolla sobre la marcha.

Iván Gómez

# Zure gorputzaren agerpenak liluratua

*Bizi den guztia jantzita bizi da.*
Jean-Louis Déotte

Artista hauen jardunari gorputzaren eta arroparen ideiak zein agertzearen nozioa triangulatzen dituen marko batetik begiratzen diogu. «Bizi den guztia jantzita bizi da» (Déotte) baieztapena egia bada, «sentikor purua», «berehalakoa» eta «landugabea» ez dira existitzen, jatorrizko biluztasuna existitzen ez den moduan. Presentzia oro, hautemate guztiak, «gailututa» daude. Gailuaren (*appareil*) gai hau teknikari eta agertzeko moduei lotuta dago. Baina jantzita agertzearen kontzeptu honek beti dauka ikuslearen beharra, beste presentzia bat agertzen zaion presentziaren kondizioan. Hortik, mimesi bikoitz honen jolasetik, gustatuko litzaiguke proiektu honetako artista eta ikertzaileekin lan egitea. Modu honetan, artista hauen jarduteko moduak lotzen ditugu eta, topaketa hau bideratzeko, arropa/gorputza harremana auzi gisa irakurtzea hartzen dugu aitzakia gisa. Jantziak material gisa, bere marka zein bere genealogia propioa, bere historia materiala, bere erabileraren historia garraiatzen duten gailu gisa, jantziak historiak inskribatzeko euskarri gisa, gorputzen pertzepzioaren gailutzearen metafora gisa. Proiektu hau galdera baten idazketa balitz bezala planteatzen da, artista hauek agertarazten dutena modu kolektiboan des-estaltzeko saiakera eta prozesu bezala.

**Helena Goñi**ren praktika mimesi bikoitz honetan ikerketa bezala irakur daiteke. Bere begiradaz jabetzen den Bestearekin topatzeak eragindako erakargarritasunak bultzatuta abiatzen den subjektibotasun gisa. Baina Helena Goñiren hautematea bi norabide horietan garatzen den konstruktu bat da, objektuaren eta subjektuaren artean eraikitzen den zubi bat,

# Prendido por el aparecer de tu cuerpo

*Todo lo que vive, vive vestido.*
Jean-Louis Déotte

El marco desde el que atendemos a la práctica de estas artistas se triangula entre las ideas de cuerpo y ropa y la noción de aparecer. Si «todo lo que vive, vive vestido» (Déotte), no existe «sensible puro», «inmediato», «en bruto», así como no existe la desnudez originaria. Toda presencia, toda percepción, está ya «aparatizada». Esta cuestión del aparato (*appareil*) está ligada a la técnica y a los modos de aparecer. Pero este aparecerse vestido implica siempre la presencia de la persona espectadora, en la condición de una presencia a la que le es presentada otra. Es desde ahí, desde el juego de esta doble mímesis, desde donde nos gustaría poder trabajar con las artistas y las investigadoras de este proyecto. Relacionamos así las maneras de hacer de las artistas y ponemos por pretexto, para encaminar este encuentro, la lectura de la relación ropa/cuerpo como cuestión. Las prendas como material, como dispositivos que portan la marca, y también su propia genealogía, su historia material, su historia de uso, las prendas como soporte para la inscripción de historias, como metáfora de la aparatización de la percepción de los cuerpos. Este proyecto se plantea como si fuera la escritura de una pregunta, como proceso e intento con el que des-cubrir en colectivo lo que estas artistas hacen aparecer.

La práctica de **Helena Goñi** puede leerse como indagación en esta doble mímesis, como subjetividad que arranca seducida por el encuentro con un Otro que descubre su mirada. Pero la percepción de Helena Goñi es un constructo que se elabora en ambas direcciones, un puente que se tiende entre objeto y sujeto, por el que no dejan de cruzarse las miradas. Una de las peculiaridades de su saber-hacer reside precisamente en exprimir de su *tech-*

non begiradak etengabean gurutzatzen diren. Bere egiten jakitearen berezitasunetako bat, hain zuzen ere, zera da, bere *techné*tik zukutzea *alethia* agertarazteko erabiltzen duen gaitasun *poietikoa*. Hau da, presentziatik abiatuta horretan ezkutaturik zegoena agerian uzteaz gain, keinu horretan ere *episteme* bat erauzten da, bere inguruaren ezagutza kritiko bat, begirada «janzteko» duen jakintzatik datorrena. Begirada honek, bere itxaropen eta porrot propioak bere belaunaldiko desio eta dezepzioekin batzen dituen eguneroko bat erakusten digu, beste batzuen gorputzetan islatua.

**Daniel Llaría**ren egiten jakitera horretara lanaren, gizarte-klaseen eta artisten paperen inguruko imajinarioan belaunaldien arteko jauziak artikulatzeko duen modutik hurbilduko gara. Bere ekoizpenak itxuraz egunerokotasunekoak diren elementuetan ezkutatzen den sinbolikotasuna eta ideologikotasuna azaleratzen ditu. Materialen aukeraketa, baita erabiltzen dituen forma eta keinuena, egite politiko bati erantzuten diote, non kontaketa pertsonal bat eta gorputzari ezartzen zaizkion kode kolektiboak bateratzen diren.

**Izaro Ieregi**ren lanean kodeak etengabe transkodetzen diren konstruktu bat irakur dezakegu. Itzulpenen artetik eratorritako dialektika bat; artxiboa, interpretazioa, gorputz-saiakera, aukeraketa eta ukapena, berridazketa, performatizazioa, berriz ere saiakera eta berriz ere keinuaren objektizazioa, eta berriz ere zentzua eusten duen protesia... Gailuen artean ematen den isuraldatze-sistema bat; hortik abiatuta aparatizatutako gorputza formatu eta transformatu egiten du, agerrarazi eta desagerrarazten du. Indarkeriaren eta egokitzapenaren arteko bide batek markatutako emaitzak, bere praxiak zeharkatutako agertze bat.

Iván Gómez eta Idoia Leache

*né* la capacidad *poiética* con la que hace aparecer la *alethia*. Es decir, no solo nos revela a partir de la presencia lo que estaba oculto en ella, sino que además, en ese gesto, se extrae una *episteme*, un conocimiento crítico de su entorno elaborado desde su saber «vestir» a la mirada. Esta nos revela, en cuerpos de otros, un diario personal en el que se conjugan sus propias expectativas y fracasos con los deseos y decepciones de su generación.

Al saber-hacer de **Daniel Llaría** nos acercamos desde el modo en que articula los saltos generacionales en el imaginario en torno al trabajo, las clases sociales y el papel de las y los artistas. Su producción hace emerger lo simbólico y lo ideológico que se oculta bajo elementos de aparente cotidianidad. La elección de los materiales, así como la de las formas y gestos que utiliza, responden a un hacer desde lo político que aúna un relato personal y una lectura que abarca los códigos colectivos a los que el cuerpo es sometido.

Leemos, en el trabajo de **Izaro Ieregi**, un constructo en el que los códigos se transcodifican continuamente. Una dialéctica que deriva entre traducciones; entre el archivo, la interpretación, el ensayo corporal, la selección y el rechazo, la reescritura, la performatización, de nuevo el ensayo y de nuevo la objetización del gesto, y de nuevo la prótesis que sustenta el sentido... Un sistema de trasvases entre dispositivos, desde donde forma y transforma, hace aparecer y desaparecer al cuerpo aparatizado. Resultados marcados por un camino entre la violencia y la adaptación, un aparecer atravesado por su praxis.

Iván Gómez e Idoia Leache





# Helena

# Goñi













## HELENA GOÑI

### ARGAZKIGINTZA

Bere jardun artistikoa kamera zein subjektuen eta argazkilariaren arteko harremanak bitartekari dituzten uneak sortzeaz elikatzen da. Ondorio bezala, bere lanaren zati handiena fotografikoa da, nahiz eta noizbehinka mugimenduan dauden irudiekin eta idatzizko hizkuntzarekin uztartzen dituen.

2013. urtean graduatu zen Arte Ederretan (UPV/EHU). Duela gutxi New Yorken bere ikasketak luzatzeko Fullbright beka jaso du. Bakarkako zein taldekako hainbat erakusketatan parte hartu du. 2016an Ertibil deialdiko hirugarren saria eskuratu zuen, eta 2020an, berriz, lehen saria.

## HELENA GOÑI

### FOTOGRAFÍA

Su práctica artística se nutre de generar encuentros mediados por la cámara y las relaciones que se establecen entre el sujeto y la fotógrafa. Como consecuencia, la mayor parte de su trabajo es fotográfico, aunque en ocasiones lo combina con otros medios como la imagen en movimiento y el lenguaje escrito.

Se graduó en 2013 en Bellas Artes (UPV/ EHU). Recientemente ha recibido la beca Fulbright para ampliar sus estudios en Nueva York. Ha participado en numerosas exposiciones tanto individuales como colectivas. Recibió el tercer premio Ertibil en 2016 y el primer premio en 2020.

# Daniel

# Llaría

















## DANIEL LLARÍA

ESKULTURA / BIDEOA

Dialektika materiala ezinbestekoa da bere pentsamoldean. Errepresentazioaren politika ardura estruktural gisa ulertzen du, eta horrek desioa, dialektika eta begiradaren politika harremantzeko intimoa dena tresna bezala erabiltzera bultzatzen dio.

2009. urtean Arte Ederretan lizentziatu zen (UPV/EHU) eta Fullbright beka bati esker Parsons – The New Schoolen (New York) egin zituen masterreko ikasketak. Bakarkako zein taldekako hainbat erakusketatan parte hartu du. 2018an eta 2020an Ertibil deialdiko hirugarren saria jaso zuen.

## DANIEL LLARÍA

ESCULTURA / VÍDEO

La dialéctica material es esencial para su forma de pensar. Considera la política de representación una preocupación estructural que le empuja a introducir lo íntimo como herramienta para vincular el deseo, la dialéctica y la política de mirar.

Se licenció en 2009 en Bellas Artes (UPV/EHU) y realizó sus estudios de máster en Parsons – The New School (Nueva York) gracias a una beca Fulbright. Ha participado en numerosas exposiciones tanto individuales como colectivas. Recibió el tercer premio Ertibil en 2018 y en 2020.

# Izaro

# Ieregi



Jarri

Gorputzaren osagarri batetik eskulturara igarotzen diren objektuak sortzeko ideiarekin egin dut lan. Temati saiatu naiz gorputzetik objektura eta kontrako noranzkoan igarotzen. Uneoro pentsatu dut eskultura baten eraiketaren ariketan gorputz ariketa bat balitz bezala.

Zen praktikaren inguruko liburu batean irakurri nuen benetan bizi nahi badugu, gorputzetik eta gorputza prest izanda egin behar dugula baieztatzeko modu bat dela trebakuntza. Liburu hori etzanda irakurri nuen, esertzea eragozten zidan istripu batetik sendatzen nintzen bitartean.

Jarri

He trabajado con la idea de crear objetos que transitan desde un accesorio corporal a la escultura. He tratado insistentemente en transitar de cuerpo a objeto y viceversa. En todo momento he pensado en el ejercicio de construir una escultura como un ejercicio corporal.

Leí en un libro sobre la práctica Zen que la ejercitacion es una forma de afirmar que, si de veras queremos vivir, tenemos que hacerlo desde el cuerpo y con el cuerpo preparado. Este libro lo leí tumbada, mientras me recuperaba de un accidente que me impedía sentarme.













## IZARO IEREGI

### PERFORMANCE / ESKULTURA

Izaro Ieregik performancetik egiten du lan, nozio eskultorikoekin, gorputzaren potentzialtasunaz aritzeko. Gorputzen eta identitateen bortizkeriaz diharduenak kezkatzen du, eta zaurgarri eta aldakor gisa aurkezten ditu.

2010. urtean Arte Ederretan lizentziatu zen (UPV/EHU). Bere ikasketak luzatu zituen JAIn (Jardun Artistikoen Institutua) eta gaur egun DAI programan dago (Dutch Art Institute). Bakarkako zein taldekako hainbat erakusketetan parte hartu du. 2018an Ertibil deialdiko bigarren saria eskuratu zuen eta 2019an, berriz, hirugarrena.

## IZARO IEREGI

### PERFORMANCE / ESCULTURA

Izaro Ieregi trabaja desde la performance con nociones escultóricas para remitir a la potencialidad del cuerpo. Le inquieta aquello que versa sobre lo violento en los cuerpos y las identidades, presentándolas vulnerables y cambiantes.

En 2010 se licenció en Bellas Artes (UPV/EHU). Amplió su formación en JAI (Instituto de prácticas artísticas) y actualmente cursa el programa DAI (Dutch Art Institute). Ha participado en numerosas exposiciones tanto individuales como colectivas. Recibió el segundo premio Ertibil en 2018 y el tercer premio en 2019.

# Bitartekotza programa

# Programa de mediación

LAU HITZALDI
ETA TOPAKETA BAT

CUATRO CHARLAS
Y UN ENCUENTRO

# Maite Garbayo

**2021 / 09 / 23 (19:00 h)**
Arrigorriaga

## Gorputzen agerpenerako gailuak

Irudiak eta materia ulertzeko beste logika eta modu batzuetatik zehar ibiliko gara, agertzearen nozioaren inguruan berriz hausnartzeko, memorien, afektuen eta identitateen gainjartzean oinarritutako subjektibazio konplexu baten modura. Beti osorik eta presente dagoen subjektu modernoaren eredua desafiatzen duen subjektibotasun bat. Agertzea nire gorputza beste gorputz batzuekin lerrokatzea da. Aipatu, gainjarri, teilakatu. Nire gorputza bestearengan, bestearen gorputza nigan. Topaketan nire nortasuna zulatu, aienatu. Nire gorputzak beste gorputz bat presente egiten duenean, beste gorputz bat nirearen bitartez agertzen denean, ezinbestean nigandik zerbait desagertzen da.

## Aparatos para el aparecer de los cuerpos

Recorreremos otras lógicas y otros modos de entender las imágenes y la materia, para repensar la noción de aparecer como una forma de subjetivación compleja basada en la superposición de memorias, afectos e identidades. Una subjetividad que desafía el modelo de sujeto moderno, siempre entero y presente. Aparecer es alinear mi cuerpo con otros cuerpos. Citar, superponerse, solaparse. Mi cuerpo en el otro, el cuerpo del otro en mí. Agujerear mi identidad en el encuentro, hacerla ausente. Cuando mi cuerpo hace presente a otro cuerpo, cuando otro cuerpo aparece a través del mío, desaparece necesariamente algo de mí.

# Natalia Vegas

**2021 / 10 / 15 (19:00 h)**
Basauri

## Gorputzei indar egin

Hitzaldi honetan gorputza, gailua, *display*a performancea eta unea bezalako kontzeptu iragazkorretatik bidaiatzea da asmoa, beraien arteko zein Izaro Ieregi artistak egindako lan batzuen arteko elkarrizketan murgilduz.

## Cuerpos forzados

En esta charla se pretende viajar por conceptos tan permeables como el cuerpo, el dispositivo, el *display*, la performance y el presente para dialogar entre ellos y algunos de los trabajos que ha realizado la artista Izaro Ieregi.

# Pablo Marte

**2021 / 11 / 11 (19:00 h)**
Getxo

## *Back down and in*

Daniren bideoetan beti dago mugimendua. Eta piezetan, zeremonia bat. Baita eutsi ezineko binakako harreman bat ere. Bi, jendetza bilakatzera irits daitezke. *Back down and in*, elkar nahaspilatutako eta elkarren arerio diren gorputzak: erakusten didan zirkulartasuna, neure burua agerian uzten dut, erakusketa bat beste baten barnean, gainezarritako begien modura, beraien buruen gain biratutako betazal/begi-niniak. Bereizita eta errespetua ematen duen kanta batekin ageri den bertso baten inguruan metatutako formak, izugarriena haustera baino ez datorrena: *ta solitude*.

## *Back down and in*

Siempre hay movimiento en los vídeos de Dani. Y en las piezas, una ceremonia. Y también una irresistible relación a dos. Dos pueden incluso convertirse en multitud. *Back down and in*, cuerpos co-intrincados y contrincantes: espléndida circularidad que me enseña, me exhibo, una exhibición dentro de otra, como ojos superpuestos, párpados-pupilas girados sobre sí. Formas orilladas en torno a un verso que aparece separadamente y con un cantar que impone, pero que solo viene a quebrar lo más terrible: *ta solitude*.

# Jaime Cuenca

**2021 / 12 / 2 (19:00 h)**
Amorebieta

## Gailu subjektibatzaileak eta emantzipazio gailuak

Helena Goñiren praktika artistikoan erlazio-jokabide bat dagoela esaten da, besteekin egote bat, gure garaia gogorarazten duena. Zer dakarte belaunaldi-arteko argidun ideia subjektibatzaile hauek gorputzen mikro-politikekiko? Hitzaldi honetan gaztaro nozioa figura-politiko gisa disekzionatzea bilatuko da, Helena Goñiren lana zeharkatzen duten gaien aniztasunarekin lotuta betiere.

## Aparatos subjetivantes y dispositivos de emancipación

Dicen que en la práctica artística de Helena Goñi hay una actitud relacional, un estar con otros, de la que emana cierto aire de nuestra época. ¿Qué implican estas ideas subjetivantes de halo generacional en relación a las micro-políticas de los cuerpos? En esta charla se buscará diseccionar la noción de juventud como figura política en relación a la pluralidad de campos que se cruzan en el trabajo de Helena Goñi.

# María García Ruiz & Isabel de Naverán

**2021 / 12 / 16 (19:00 h)**
Leioa

## *Allure* (mugimenduan dauden gorputzen politika eta poetika)

María García Ruizek Isabel de Naveráni proposatutako gutun-trukatzea, saiakera filmiko forma duena, keinuekin pentsatzea, keinu artean, edo, Marie Bardetek esango lukeen moduan, keinu baten modura pentsatzea, iradokitzen duena. Badakigu espazioek, duten antolamenduaren bitartez, gorputzak diziplinatzen dituztela modu jakin batean mugiaraziz eta modu jakin batean portatuaraziz. Arkitektura da, normalean, *polizia*. Boterearen koreografiarentzat ezinbestekoa da espazioaren kontrola. Baina, edozein diskurtsok bezala, arkitekturak ere baditu bere arrakalak. Zeintzuk dira eszenatoki horretan sartzen diren disidentzia-keinuak? Zein motatako espaziotasuna sortzen dute? Zenbait erkidegoren lekualdaketa eta finkatzeen artean, non topatu daiteke erritmo asinkopatua, guztiz harrapatua izateari amore ematen ez dion bizitzaren pultsua? Zertan datza mugimenduan dauden gorputzen poetika?

## *Allure* (política y poética de los cuerpos en movimiento)

Intercambio epistolar propuesto por María García Ruiz a Isabel de Naverán, en forma de ensayo fílmico, que sugiere pensar con gestos, entre gestos o pensar como un gesto, que diría Marie Bardet. Sabemos que los espacios, a través de sus disposiciones, disciplinan los cuerpos, les hacen moverse de una manera determinada, comportarse de una determinada forma. La arquitectura es, usualmente, la *policía*. Para la coreografía del poder es esencial el control del espacio. Pero como cualquier discurso, la arquitectura tiene también sus grietas, ¿cuáles son los gestos disidentes que se cuelan en ese escenario? ¿Qué tipo de espacialidad producen? Entre el desplazamiento y la fijación de ciertas comunidades, ¿dónde encontrar el ritmo asincopado, el pulso de la vida que se resiste a ser completamente atrapada? ¿Dónde reside la poética de los cuerpos en movimiento?

# Zabalkunde programa

# Programa de difusión

SARE SOZIALAK
ETA PROMOZIO BIDEOA

REDES SOCIALES
Y VÍDEO PROMOCIONAL

# Blinks

## Iván Gómez

## Idoia Leache

@prendido_liluratua



Blinks erakusketa zabaltzeko enkargu gisa jartzen da martxan. Helburu horretatik abiatuz, Iván Gómez eta Idoia Leache komisarioek Instagram aplikazioaren estetika baliatzen dute irudien, bideoen eta testuen gorputz bat diseinatzeko. Multzo honek komisariotzaren jardunean landutako kontzeptuetara jotzen du, eta artisten ahotsak ere gehitzen ditu.

Blinks arranca como un encargo para difundir la exposición. Partiendo de ese objetivo, Iván Gómez e Idoia Leache aprovechan la estética de la aplicación de Instagram para trazar un cuerpo de imágenes, videos y textos. Este conjunto alude a los conceptos comisariales trabajados, aportando también las voces de las artistas.

# Notas al pie

## LEKUTAN

## Andrea Estankona & Juan Pablo Ordúñez / MawatreS

@prendido_liluratua

Argazki oineko oharrek artista bakoitzaren proiektuekin hitz egiten duten edukiak proposatzen dituzte formatu ezberdinetatik (testua, irudia, audioa, gif-a...). Zenbait kasutan lanarekin harremana duten materialak iradoki ditzakete, beste batzuetan informazioa zabaldu, ikuspuntu ezberdinak proposatu, parte hartzera deitu eta, azken finean, oihartzun eta irakurketa anitzak aktibatu.

Las notas al pie proponen contenidos que dialogan con los proyectos de cada artista desde diferentes formatos (texto, imagen, audio, gif...). En algunos casos pueden sugerir materiales relacionados con la obra, en otros, ampliar información, proponer puntos de vista diferentes, invitar a la participación y, en definitiva, tratar de activar resonancias y lecturas múltiples.



# Kreditoak / Créditos

ANTOLAKUNTZA
ORGANIZACIÓN
Amorebieta-Etxanoko Udala
Arrigorriagako Kultur Etxea
Kultur Leioa
Basauriko Kultur Etxea
Getxoko Kultur Etxea

LAGUNTZA
COLABORACIÓN
Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila

ESKERRAK
AGRADECIMIENTOS
Fundación BilbaoArte Fundazioa

KOMISARIOTZA, KOORDINAZIOA ETA MUNTAKETA
COMISARIADO, COORDINACIÓN Y MONTAJE
Iván Gómez & Idoia Leache

TESTUAK
TEXTOS
Iván Gómez

ARTISTAK
ARTISTAS
Helena Goñi
Daniel Llaría
Izaro Ieregi

BITARTEKOTZA PROGRAMA
PROGRAMA DE MEDIACIÓN
Maite Garbayo
Natalia Vegas
Pablo Marte
Jaime Cuenca
María García Ruiz & Isabel de Naverán

ZABALKUNDE PROGRAMA
PROGRAMA DE DIFUSIÓN
Iván Gómez & Idoia Leache
Asociación LEKUTAN (Andrea Estankona & Juan Pablo Ordúñez / MawatreS)

ITZULPENAK
TRADUCCIONES
Arrigorriagako Udala. Euskara Saila

ZUZENKETAK
CORRECCIONES
Naiara Herrera Ruiz de Eguino

DISEINUA
DISEÑO
Iván Gómez & Idoia Leache

ASEGURUAK
SEGUROS
Aon Gil y Carvajal

GARRAIOA
TRANSPORTE
Bizkaia-net

© testuak eta argazkiak: egileak
© textos y fotografías: los/as autores/as

L.G. / D.L.: BI-01301-2021

IRAILAK 13 - URRIAK 3
13 DE SEPTIEMBRE - 3 DE OCTUBRE

**Arrigorriaga**
Euskaldun berria erakusketa gela
Sala de exposiciones Euskaldun berria
Udaletxeko plaza z.g.

URRIAK 6 - 27
6 - 27 DE OCTUBRE

**Basauri**
Arizko Dorretxea
Frantzisko Kortabarria z.g.

URRIAK 30 - AZAROAK 20
30 DE OCTUBRE - 20 DE NOVIEMBRE

**Getxo**
RKEko erakustaretoa / Sala de exposiciones de RKE
Santa Eugenia plaza 1

AZAROAK 23 - ABENDUAK 13
23 DE NOVIEMBRE - 13 DE DICIEMBRE

**Amorebieta-Etxano**
Zelaieta zentroa
Zelaieta parkea z.g.

ABENDUAK 15 - URTARRILAK 8
15 DE DICIEMBRE - 8 DE ENERO

**Leioa**
Kultur Leioa
Jose Ramon Aketxe plaza 11